


# Metaketa



**NEREA IBARZABAL SALEGI**  
BERTSOLARIA



PAULA ESTÉVEZ

**L**ehengoan mezu bat idatzi nion METAri. Di-da, pentsatu eta egin. Mark Zuckerbergak ez du lorik egin orduetik, ez baitzen edozelako mezua izan, lehor samar idatzi nion. *Borde*, ia. Instagrameko bideo baten bidez jakin nuen METAk bere erabiltzaileek partekatutako informazioa “Adimen Artifizial Sortzailea” entrenatzeko erabiliko duela aurrerantzean. Profiletako bilioika irudi eta testu irakurraraziko dizkio (diotenez, mezu pribatuak ez; lastima, egiazkotasun apurra hortxe egon zitekeen), eta sistemak haien arteko asoziazioak ikasiko ditu, gerora berak sortu ahal izateko.

Adibidez, ikasiko du hondartzara joaten diren gizakiengan ohikoa dela toallan etzan eta norbere izter distiratsuen argazki bat egitea, atzean paisaia ageri dela, eta *bakea*, *paradisua* edo *oporrak* hitzekin lotu ohi dutela une hori. Ikasiko du erakusten dituzten hankak eta gainerako gorputz atalak molde jakin batekoak izaten direla, eta interakzioak nabarmen ugaritzen direla azala bistan dagoen argazkietan. Ikasiko du *bakea* hitza mokoan adaxka bat daraman txori zuri batekin ere lotzen duela jendeak, eta zenbait herrialderen banderekin ere bai, bandera urdinak, horiak, beltzak, gorriak, berdeak, zuriak, izardunak, ilar-

gidunak, erabiltzailearen nitxo ideologiakoaren arabera. Euskara ere ikasiko du agian, erdipurdi.

Kontua da nik ez nuela nahi “adimen sortzaile” horrek hainbeste gauza ikasterik, ez nire argazkiei begira, behintzat. Nahikoa sufritzen dut nire adimen analogikoak gutxi edo eskas sortzen duela sentitzen dudanean, gainera ni baino efikazagoa izan daitekeen bizkarroi bat elikatzeko.

Ausaz agertu zitzaidan bideo horrek METAren sarekada horretan zelan ez erori kontaktzen zuen. Instagramen ezarpenetan sartu eta pribatutasuneko atalean mezu bat bidaltzeko aukera dago.

Honelako zerbait bidali nion Mark Zuckerbergi, ez emotikono, ez bigunkeria, txarto zaindu duzun maitaleak bere jertsea zein tabernatan utzi behar diozun esanez idazten dizunean bezala, kafe baterako zirrikiturik gabe:

“*Kaixo* (Ez, uste dut ez nuela agurtu ere egin).

Ez dut nire informazioarekin Adimen Artifiziala elikatzeko baimenik ematen, ez orain, ezta etorkizunean ere. Neurri horrek ez du nire intimitatea errespetatzen, eta nire pribatutasunerako eskubidea urratzen du”.

Jo eta ma utzi nuen Mark. Ez zidan gauso osan erantzun, gizajoak. Egia esan,

ez nekien norberak erakutsitako irudien “pribatutasunerako eskubiderik” existitzen ote zen ere, gogor plantak egitearren idatzi nuen horrelako ziurtasunez, abokatua naizela pentsa zezan, beldurtu zedin apurtxo bat.

Ez neukan fede handirik; sinetsita nengoen sorrerako termino eta baldintzak onartzerakoan arima ere saldu egin nuela erantzungo zidatela, eta orain nire aurpegia Japoniako xaboi fabrika bateko logotipoa dela, Homer Simpsonen estiloan, edo Bruce Willis gertatu bezalaxe, telefono konpainia errusiar bat iragarzteko erabiliko nindutela.

Baina, Markek gaua negarrez eman-go zuen niri nola erantzun pentsatzen, biharamun goizerako mezu hau topatu bainuen emailean:

“Zure eskaera aztertu dugu, eta onartzen dugu zure kontraktotasuna. Horrek esan nahi du aurrerantzean zure eskaria beteko dugula”.

Harrigarria, ezta? Horren erraz! David Goliath mendera dezake, bai horixe. Zer esaten ari nintzen jakin ez, eta arrazoa izan. Benetako abokatua ote naiz, ba? Bai tipo abegikorra, Mark. Orain la-saiago geratzen naiz, hau bai zerbitzua, beste ordu bi emango ditut bideo motzak ikusten, ea burujabetza digitalerako beste aholkurik agertzen zaidan. ●